



**2023KO IRAILAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko irailaren hogeita zortzian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Haritz Antoñanzas Urdangarin eta Maria Carolina Aguirre Mastrangelo.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Iñaki Eskisabel Zurututza kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko uztailaren 20an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du ebazpenen bidez izan dutela brigadako peoiaren kontratazioaren berri, baita udaltzain agente laguntzailearen behin behineko izendapenaren berri ere.

Alkateak erantzun dio horren berri teknikariek ematen geniela uste zuela, eta hemendik aurrera kontratazio guztiak jakinaraziko zaizkiela.

**III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 5 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN
ESPEDIENTEA.-**

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedienteak irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du kreditu aldaketa tresna finantzario oso erabilgarria dela batez ere ezustekoak sortzen direnean, baina semaforoa jartzearena ez duela uste ezusteko bat izan denik eta hurrengo urterako aurrekontuan sartu zitekeela. Hala ere baiezkoa emango diotela kreditu aldaketari.

Alkateak dio legeak ez duela jasotzen kreditu gehigarria ezusteko egoeretan soilik bakarrik erabili daitekeenik. Dagoen gerakina kudeatzeko modu bat dela ezusteko horiei aurre egiteko, eta ezustekoak izan gabe ere beharrezkotzat jotzen diren inbertsio edo gastuak egiteko.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 5 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II	Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	59.200,00 €
VI	Inbertsio errealak	31.500,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		90.700,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	90.700,00 €
GUZTIRA		90.700,00 €



Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

IV.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN AURRERAPENA IDAZTEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapena idazteko zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio prozedura hasi eta udal zerbitzu teknikoek baldintza pleguak gauzatu dituztelarik, bere onarpenera jarri dira udal Osoko Bilkura honen aurrean.

Lehiaketa honen datu esanguratsuenak honako hauek dira:

Kontratuaren epea 40 hilabetekoa da eta epe osorako lizitaziorako oinarria BERREHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU euro ETA LAUROGEITA BEDERATZI zentimo (278.354,89 €) gehi BEZari dagokion berrogeita hemezortzi mila laurehun eta berrogeita hamalau euro eta berrogeita hamairu zentimokoa (58.454,53 €) da.

Ormazabal zientziaz (EH Bildu) dio eragozpen batzuk ikusten dituztela. Batetik partaidetzari ez zaiola behar duen garrantzirik ematen. Partaidetza teknikaririk ere ez dela aipatzen pleguetan. Bestetik, ingurumen teknikariari dagokionez dio pleguetan jasota dagoela ingurumen teknikari batek parte hartu behar duela HAPOa idatziko duen lantaldean, baina egokiago irizten dute kanpo aholkularitza batek ikuskatuko balu. Eta azkenik, kontratua burutzeko baldintza berezietan, hizkuntzari, berdintasunari eta partaidetzari buruzko ez betetzeak ez ditu aipatu ere egiten. Horrelako eragozpen batzuk ikusten dizkiete pleguei.

Alkateak erantzun du Ormazabal zientziaz (EH Bildu) aipatu dituen gauza batzuk lehen ere aipatu zituela, baina proposamen berriak ere egin dituela eta gai hau aurrez tratatu den 4-5 hirigintza batzordeetan ez duela horrelakorik proposatu. Lehen aldia dela HAPO bat idazten dena Udal honetan eta teknikariek markatu dutela bidea. Plegu hauetan partaidetza bermatua gelditzen dela uste dutela. Proposamenak aurretik egin izan balituzte, kontuan hartuko lituzketela egokiak irudituz gero. Ingurumen teknikaria kanpoko izango balitz, prozesua zaildu eta oztopatu egingo zuela esan zutela teknikariek.

Gaia aztertu ondoren eta Hirigintza, etxebizitza eta obren batzordearen proposamenen aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), honako erabakiak hartu ditu:

LEHENA.- Lazkaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapena idazteko zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko Berariazko Klausula Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.- Lazkaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapena idazteko zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartzea, 2023ko aurrekontuari dagokion 1 642.01.150.00 partidaren gain gastua baimendu eta lehiaketa

ireki bidezko esleipen prozedura irekitzea xedatzea, iragarkia Kontratzailearen Profilean eta baita Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ere argitaratuz.

V.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 13. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen obra egiaztatzea egin dute.

Hamahirugarren obra eglaztagiria BERREHUN ETA HOGEITA HAMALAU MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA HOGEITA HAMAIRU ZENTIMOKoa (234.935,33 €) da, BEZa barne.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman die ziurtagiri hauei.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela inbertsioarekin bat ez datozelako.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), ziurtagiri hauek onartu ditu.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA